



TOLOSAKO
UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA
2018.07.26

Tolosako Udaletxean, 2018ko uztailaren 26an, 20:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 26 de julio de 2018, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Kristina Pelaez Errazkin
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Bertaratu ez den zinegotzia:

Lore Agirre Zipitria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko ekainaren 28ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

1. -Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 28 de junio de 2018.



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|---|--|
| 2. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea. | 2. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial. |
| 3. 2017ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorraren onarpena. | 3. Aprobación de la Cuenta General del sector publico de 2017. |
| 4. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. | 4. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado. |
| 5. Etxez etxeko laguntza zerbitzua: Gipuzkoako Foru Aldudiarekin hitzarmena onartzea | 5. Aprobación del convenio de servicio de ayuda domiciliaria con la Diputación Foral de Gipuzkoa. |
| 6. 2018ko diru-laguntzen eranskinaren aldaketaren onarpena. | 6. Aprobación del anexo de subvenciones de 2018. |
| 7. 2018/8 kreditu aldaketarako (kreditu gehigarria) espedientearen onarpena. | 7. Aprobación del expediente de modificación de creditos 8/2018 (credito adicional). |
| 8. 2018/1444 (2018/9 kreditu gaikuntza) eta 2018/1452 (2018/10 kreditu transferentzia) dekretuei buruz kontu eman. | 8. Dar cuenta de los decretos de Alcaldía 1444/2018 (habilitación de credito 9/2018) y 1452/2018 (10/2018 transferencia de credito). |
| 9. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko ekainaren 1etik 30era (2018/1.141- 2018/1.358). | 9. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 31de junio de 2018 (2018/1.141-2018/1.358). |
| 10. Galderak eta eskaerak. | 10. Ruegos y preguntas. |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

1. Ondorengo akta onartzea:
2018ko ekainaren 28ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 28 de junio de 2018.

Izenburuan aipatutako akta aho batez **onartu** da.



TOLOSAKO
UDALA

2. Udal langileen zein erabateko dedikazioarekin edo dedikazio partzialarekin aritzen diren Korporazioko kideen ordainsarien igoera onartzea.
2. Aprobación del incremento de las retribuciones de los empleados y empleadas públicas y de los/las miembros de la Corporación con dedicación completa o parcial.

Parte-hartzeak:

- ... Alkatea: *Diktamenean azaltzen den bezala, uztailaren 4an argitaratu ziren 2018 urterako Estatuko aurrekontu orokorrak. Hauek arautzen dute sektore publikoan aritzen diren pertsonalaren ordainsariak eta zer baldintzetan aplikatu behar diren. Aplikagarriak dira Tolosako udalean, bai lurreamendi egoitzan eta baita Tolargi, Erretengibel eta Tolosa Lantzenen ere. Bertan azaltzen den bezala, 2018. urtean sektore publikoko langileek %1,5eko igoera izango dute eta 2017 urteko Estatuko Barne Produktu Gordinak % 3,1eko portzentaian badago edo hau baino altuagoa baldin bada, 2018ko uztailaren 1etik aurrera beste % 0,25eko igoera aplikatu ahal izango da. Bestalde, 2017ko uztailaren 27ko osoko bilkura honetan, bertan, onartu zen erabateko deidikazioz edo dedikazio partziala zuten zinegotziei langileen soldata igoera berbera aplikatzea. Orduan, jasota dago baita igoera berdina aplikatzea. Udalbatzak du eskuduntza gai hau onartzeko pertsonal batzordetik onartu ondorenean eta diktamen hori da orain onartuko duguna.*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu) *“Poztekoa da pixka-pixkana udal langileak krisiaren aitzakian galdutako eroste-ahalmena berreskuratzen hastea. Hori da lehen pausoa eta espero dugu pauso gehiago egotea eta horrek mugatzen dituzten legeak eta dekretuak desagertzen joatea. Ez horregatik bakarrik, baita ere beste lege eta dekretu batzuk: esatebaterako, udal honek personal kontratatzeke duen gaitasuna mugatzen dituztenak eta jakinaren ganean gaudenean momentu honetan. Aurreko Personal batzordean oso argi gelditu zen udal honek bere funtzioak betetzeko, herritarrei zerbitzu egokia emateko, personal berria kontratatu beharko lukeela eta momentu honetan legediak mugatu egiten digu personal hori kontratatzea. Espero dezagun lehen urratsa izatea eta beste urrats horiek ahalik eta azkarren ematea. Hau da, hurrengo urtean Udal honek pausoa eman ahal izatea langileei galdutako eroste-ahalmen guztia berreskurtzeko eta udal honek izatea gaitasuna behar dituen langileak kontratatzeke.”*

**GIZA BALIABIDE ETA UDAL ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN 2018KO
UZTAILAREN 16KO IRIZPENA.**

AURREKARIAK

Joan den uztailaren 4an Estatuko Aldizkari Ofizialean 6/2.018 Legea argitaratu zen, 2018 urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. Bertan, beste hainbat gaien



TOLOSAKO
UDALA

artean, 2018 urterako sektore publikoan aritzen den pertsonalaren ordainsariak aurreikusten dira eta hauek aplikatzeko eman behar diren baldintzak.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- Estatuko Aurrekontu Orokorrak aplikagarriak dira udaletxe guztiei, izan ere ordainsariei dagokionean oinarritzko araudi gisa kontsideratua bait dago eta gainera, legeak “sektore publiko” gisa honako entitateak barnebiltzen ditu bere 18. Bat artikuluan:

- “Uno. A efectos de lo establecido en el presente Capítulo, constituyen el sector público:
- a) La Administración General del Estado, sus Organismos autónomos y Agencias estatales y las Universidades de su competencia.
 - b) Las Administraciones de las Comunidades Autónomas, los Organismos de ellas dependientes y las Universidades de su competencia.
 - c) Las **Corporaciones locales y Organismos de ellas dependientes**.
 - d) Las Entidades Gestoras y Servicios Comunes de la Seguridad Social.
 - e) Los órganos constitucionales del Estado, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 78 de la Constitución.
 - f) Las **sociedades mercantiles públicas**, entendiéndose por tales aquellas en las que la participación, directa o indirecta, en su capital social de las Administraciones y entidades enumeradas en este artículo sea **superior al 50 por ciento**. En el sector público estatal se considerarán como tales las reguladas en el artículo 111.1 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.
 - g) Las entidades públicas empresariales y el resto de los organismos públicos y entes del sector público estatal, autonómico y local.
 - h) Las fundaciones del sector público y los consorcios participados mayoritariamente por las Administraciones y Organismos que integran el sector público.
 - i) El Banco de España en los términos establecidos en la Ley 13/1994, de 1 de junio, de Autonomía del Banco de España.
 - j) El Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria (FROB).”

Hortaz, lege hau aplikagarri izango da bai Tolosako udalari, bai lurreamendi egoitzari (erakunde autonomo gisa) eta baita Tolargi, Erretengibel eta Tolosa Lantzen udal sozietateei ere.

Bigarrena.- 2018 urtean sektore publikoan diharduten langileen ordainsariak honako igoera izateko aukera izango dute, aipatutako 18 artikulua baitan:

“Dos. En el año 2018, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al **1,5 por ciento** respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2017, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2017 alcanzara o superase el 3,1 por ciento se añadiría, con efectos de **1 de julio** de 2018, **otro 0,25** por ciento de incremento salarial.



TOLOSAKO
UDALA

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE).

Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias.

Además, se podrá **autorizar un incremento adicional** del 0,2 por ciento de la masa salarial para, entre otras medidas, la implantación de planes o proyectos de mejora de la productividad o la eficiencia, la revisión de complementos específicos entre puestos con funciones equiparables, la homologación de complementos de destino o la aportación a planes de pensiones. En las Administraciones y resto de entidades del sector público definido en este artículo en **situación de superávit presupuestario** en el ejercicio **2017**, este incremento adicional podrá alcanzar el **0,3 por ciento.**”

Artikulu honetatik honako hiru ondorio hauek atera daitezke:

- Lehena, 2018 urtean sektore publikoko langileek % 1,5eko ordainsarien igoera izango dutela 2018 urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita, 2017ko abenduaren 31ean zuen ordainsariekiko.

- Bigarrena, 2017 urteko Estatuko Barne Produktu Gordinak % 3,1eko portzentaian badago edo hau baino altuagoa bada, 2018ko uztailearen 1etik aurrera beste % 0,25eko igoera aplikatu ahal izango da. Dena den, igoera hau aplikatu ahal izateko bi baldintza eman behar dira:

a) Estatuko Estatistika Institutoak argitaratzea 2017ko Barne Produktu Gordina eta hau % 3,1ekoa edo altuagoa izatea. Baldintza hau jadanik bete da.

b) Estatuko Ministro Kontseiluak onartu beharko du igoera honen aplikazioa. Baldintza hau ere joan den uztailearen 13an egindako bilkuran onartu zuen eta hortaz, %0,25eko igoera aplikatu ahal izango da ere bai.

- Hirugarrena, masa salarialaren beste % 0,2 edo % 0,3ko (2017 urtean aurrekontu superavita izan badu udalak) igoera baimendu ahal izango da hainbat ekintza zehatzak aurrera eraman ahal izateko, besteen artean, plan edo proiektu berrien efizientzia hobetzeko, hainbat destinu osagarrien maila berdintzeko, funtzio antzekoak dituzten hainbat berariazko osagarrien errebisioa burutzeko edota pentsio planei ekarpenak egiteko. Gure kasuan, udalak 2017ko aurrekontuan superavita izan duenez, % 0,3ko igoera baimentzeko aukera dago.

Hirugarrena.- Erabateko dedikazioz edota dedikazio partzialez aritu behar diren korporazio kideen ordainsarien erregulazioa ere aztertu behar da. Beraien ordainsariak ondoko arau hauetan oinarritzen dira:



-Batetik, Erregimen Lokaleko Oinarrizko Legearen 75 artikuluan eta Euskadiko Udal Instituzioen 32 eta 33 artikuluetan arautzen dira.

- Bestetik, 1/2015 Foru Dekretu/Araua, ekainaren 30ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehienezko kopuruak arautzen ditu. Bertan, 10.001 eta 20.000 biztanle artean dauden udalerrien karguentzat ezarritako ordainsariak ez dute 67.087 euro gordin urtean gainditu behar.

- Azkenik, udaleko 2018ko aurrekontuaren exekuzio arauaren 34 artikulua aipaturiko korporazio kideen ordainsariak arautzen ditu; honetaz gain, 2017ko uztailaren 27an egindako Osoko Bilkuran erabateko dedikazioa edo dedikazio partziala duten zinegotziei langileen soldataren igoera berbera aplikatzea eta une hartatik aurrera irizpide hau mantentzea erabaki zuen.

Laugarrena.- Onartzeko prozedurari dagokionez, bi xedapen gutxienez kontuan hartu beharko dira:

- Batetik, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 i) artikuluen arabera, Udalbatzak eskuduntza du gai hau onartzeko.

- Bestetik, urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena, bere 37.1 a) artikuluan ezarritakoaren baitan, udal langileen ordainsarien igoeren aplikazioa, udaleko ordezkari sindikalekin negoziatu beharko dira.

Negoiazio izapide hauek Pertsonal Juntako ordezkariekin batzorde honetan bertan burutu dira.

Bosgarrena.- Ordainsarien igoera honek udaleko aurrekontuan konsignazioa eta gastuaren onarpena beharko du, honakoa hain zuzen ere:

	2018 LEHEN SEI HILAB 1.5% IGOERA		2018 BIGARREN SEI HILAB 1,75% IGOERA	
ORDAINSARIAK	3.078.030,88	46.170,46	3.078.030,88	53.865,54
GIZ SEGURANTZA	878.918,43	13.183,78	878.918,43	15.381,07
GUZTIRA IGOERA		59.354,24		69.246,61
URTEKO OSOKO IGOERA		128.600,85		

Hau guztia ikusirik, Giza Baliabide eta Udal Antolakuntza batzordeak, Olatz Peon, Nerea Letamendia, Iñaki Irazabalbeitia eta Kristina Pelaezen aldeko botuarekin, ahobatez, hauxe da eman duen



TOLOSAKO
UDALA

DIKTAMENA

Lehenik.- Tolosako udaleko langileen (funtzionari, laboral zein pertsonal ebentuala) zein bere erakunde autonomo eta udal sozietateen ordainsarien igoera onartzea, modu honetan:

- 2018ko urtarriletik 1etik 2018 ekainaren 30a bitartean, % 1,5eko igoera.
- 2018 uztailaren 1etik aurrera, beste % 0,25 igoetzea, hau da, oro har % 1,75 igoera aplikatzea ordainsarrietan.

Bigarrenik.- Erabateko dedikazio edota dedikazio partzialez aritzen diren korporazio kideen ordainsarien igoera lehen puntuan aipatu den moduan ere aplikatzea.

Hirugarrenik.- Igoera aplikatu ahal izateko 128.600,85 eurotako gastua onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Udal langileen zein erabateko dedikazioz edo dedikazio partzialez aritzen diren korporazio kideen ordainsariaren igoera.

3. 2017ko Udal Sektorre Publikoaren Kontu Orokorren onarpena. 3. Aprobación de la Cuenta General del sector publico de 2017.

KONTUEN BATZORDE BEREZIAREN 2018KO EKAINAREN 21EKO IRIZPENA.

1.- 2017ko Udal Sektorre Publikoaren Kontu Orokorra.

2017ko Udal Sektorre Publikoaren Kontu Orokorra aurkeztu da. Dokumentazioa aldeztatik banatu zaie batzordekideei.

Kontu-hartzaileak azaldu ditu Kontu Orokorra osatzen duten

1. Udalaren Kontua
2. Iurreamendi Egoitzaren Kontua
3. Erretengibel S.A.ren Kontua
4. Tolargi S.L.ren Kontua
5. Tolosa Lantzen S.A.ren Kontua
6. Tolosa Gasa S.A.ren Kontua



TOLOSAKO
UDALA

7. Tolosa Lotzen S.A.ren Kontua
eta bakoitzak biltzen dituen egoeren eta kontuen edukia.

Ondoren, batzordekideek Kontu Orokorraren laburpena aztertu dute. Laburpen honetan honako dokumentu hauek bildu dira.

1. Udalaren dokumentazioa.

- 1.1. Balantzea 2017-12-31n
- 1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria
- 1.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria
- 1.6. Memoria
- 1.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

2. Iurreamendi Egoitzaren dokumentazioa.

- 1.1. Balantzea 2017-12-31n
- 1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria
- 1.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria
- 1.6. Memoria
- 1.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

3. Erretengibel S.A.ren dokumentazioa.

- 3.1. Egoera Balantzea 2017-12-31n
- 3.2. Galera-Irabazien Kontua
- 3.3. Memoria
- 3.4. Aurrekontuaren likidazioaren onarpena

4. Tolargi S.L.ren dokumentazioa.

- 4.1. Egoera Balantzea 2017-12-31n
- 4.2. Galera-Irabazien Kontua
- 4.3. Memoria
- 4.4. Aurrekontuaren likidazioaren onarpena

5. Tolosa Lantzen S.A.ren dokumentazioa.

- 5.1. Egoera Balantzea 2017-12-31n
- 5.2. Galera-Irabazien Kontua
- 5.3. Memoria
- 5.4. Aurrekontuaren likidazioaren onarpena

6. Tolosa Gasa S.A.ren dokumentazioa.

- 6.1. Egoera Balantzea 2017-12-31n
- 6.2. Galera-Irabazien Kontua



TOLOSAKO
UDALA

6.3. Memoria

6.4. Aurrekontuaren likidazioaren onarpena

7. Tolosa Lotzen S.A.ren dokumentazioa.

7.1. Egoera Balantzea 2017-12-31n

7.2. Galera-Irabazien Kontua

7.3. Memoria

7.4. Aurrekontuaren likidazioaren onarpena

8. Dokumentazio osagarria.

8.1. Tolosaldea Garatzen S.A.ren Urteko Kontuak

8.2. Zazpiturri S.A.ren Urteko Kontuak

Kontu-hartzaileak azaldu ditu Kontu Orokorra prestatzerakoan Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparru berriak ekarri dituen aldaketa nagusiak.

Kontuen Batzorde Bereziaren ustetan Kontu Orokorra behar bezala justifikatua geratu da, dokumentu horiek aztertu ondoren, eta Kontu Orokorra, Aurrekontuarekin, Gastuen Egoera aldatzeko erabakiekin, Aurrekontuaren Likidazioarekin, hala nola Aurrekontu-Ondare kontabilitatea osatzen duten beste liburu eta dokumentuekin konparatu eta gero.

Hau guztia kontuan harturik, batzorde honek, aho batez, ontzat jo du Kontu Orokorra. Hala eta guztiz ere, jendaurrean erakutsi ondoren, Kontuen Batzorde Bereziaren diktamenarekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, Kontu Orokorra Udalbatzaren onespenerako jarriko da, bidezkoa bada honek onar dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2017ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra.



4. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena. 4. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO UZTAILAREN 19KO IRIZPENA.

Abenduaren 19ko 2112003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat datar aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2018-05-24	2017-12-01	0800.226.06.334.10	DRUCK SERVICIOS GRAFICOS S.L.U.	171778	PROTECCION DEL CUADRO DE LA PIRULA	471,90 €
2018-05-28	2017-09-28	1000.221.03.342.20	ENDESA ENERGIA S.A.U.	PZZ707N0005202	NUMREO DE PEDIDO: SPF ANUAL 2014	72,42 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2017ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu ditu** itxitako ekitaldiko fakturak.



TOLOSAKO
UDALA

5. Etxez etxeko laguntza zerbitzua: Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena onartzea. **5. Aprobación del convenio de servicio de ayuda domiciliaria con la Diputación Foral de Gipuzkoa.**

Parte-hartzeak:

Alkatea: "2008. urteko Gizarte zerbitzuetako legean eskumenak norenak diren argitzen dira eta Etxez etxeko zerbitzua udal eskumena den bezala, Adinekoen egoitzak Foru Aldundiaren eskumen bezala argitzen dira bertan. Eskualdaketa hori egiteko Foru Aldundiarekin Udalek hiru urteko plangintza adostu zuen 2017, 2018 eta 2019ri dagokiena. Gaur proposatzen da Foru Aldundiaren hitzarmena sinatzea. 2018ko hitzarmen honetan berrikuntza bezala aipatu behar da etxez etxeko zerbitzua sustatu eta bultzatzeko Foru Aldundiak proposatzen dituela hainbat neurri hartzea. Horien arabera Foru Aldundiko ekarpenaren %25a barematuko da. Hobekuntza horiek zerbitzu sozialeko batzorde teknikoak proposatutakoak dira. Gaur egun etxez etxeko zerbitzuak Tolosan harrera oso ona du herritarren artean. Zerbitzuaren iraupena bermatuta dagoela esan genezake. Egun 128 kasu daude aktiboan eta 160 pertsoneri ematen zaie zerbitzua. Kasu batzuetan famili berdineko kide ezberdinak jasotzen dutelako arreta zuzena. Proposatutako hobekuntzei dagokionez kasu batzuetan udalak bere araudian jasota dauzka hobekuntza horiek eta beste batzuetan ez dira ikusi egokiak Tolosako egoerarako. Banaka-banaka aipatzearren: Lehen hobekuntza, erabiltzaileen orduko prezio publikoa jeistea. Gaur egun erabiltzaile bakarra dago pertsona kopuru maximoa ordaintzen duena, egoera ekonomiko bikainagoetan dauden pertsonak zerbitzua ez dutelako erabiltzen. Batzordean horrela komentatu zen eta pentsatzen dugu sistema egokia dela gaur egun Tolosan daukaguna, kalterabatasun egoeran daudenei lehentasuna emateko. Bigarren hobekuntza arreta egutegia zabaltzea urteko 365 egunetan da. Gaur egunean Tolosako araudian zazpigarren artikuluan jasota dago aukera hau. Egun arrunta, astelehenik ostiralera, bereziak eta baita larunbata eta jai egunak ere. Hirugarrena, gehienezko orduko intensitatea proposatzen da, hirutik lau ordua igotzea. Tolosako araudian gehienez hiru ordu jasotzen dira. Hogeita bi kasu dauzkagu hiru ordu horietako intensitatearekin eta arreta gehiago behar duen pertsonak menpekotasunaren legearen baitan sortutako laguntza sistemaren bidez estaltzen da eta baita beste baliabide batzuekin ere, Eguneko Zentroak esaterako. Hala ere, eta interesgarria izango balitz zerbitzu hau zabaltzea lau orduetara balorazio tekniko egin dezakegu eta ordenantza berria lantzerakoan planteatuko dugu. Laugarrena, premiazko sarrera bidea jartzea. Tolosako araudian, 16. artikuluan, larrialdi egoeratan zerbitzua berehala ematearena jasota dago. Eta bosgarren hobekuntza bestelako modalitatean jartzea eta Tolosako udal araudian jasotako dago hirugarrenean eta 8.3 artikuluan. Modu guztietara eta hitzarmenari dagokionez hamabigarren puntuan hitzarmenaren indarraldia aipatzen da. Guk onartuko dugu hitzarmena dagoen bezala baina aipamen bat egingo diogu legeari eta eskatuko nioke Begoñari argitzeko zer legea eta zergatik egin behar dugun aipamen hori."



TOLOSAKO
UDALA

Begoña Garmendia Vazquez Udal idazkaria: *“Gauza da Hitzarmena aurreikusten duenez indarraldia hasiera batean izango litzateke 2019ko abenduaren 31 bitartean eta jartzen du luzatu ahal izango dela urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago. Klausula hau interpretatu behar da kasu guztietan kontutan hartuz Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen bere 49. artikuluan esaten duena lankidetzan edo hitzarmen baten gehieneko iraupena lau urtekoa dela, ez dagoela jarraipen edo luzapen tazitorik, baizik eta, espresuki luzatu behar dela eta luzapen ezin duela izan beste lau urtekoa baino luzeagoa. Orduan, hori kontutan hartu behar da hitzarmen hau behintzat interpretatzeko garaian. Hori alde batetik, eta, bestalde, pentsatzen dut hau kasua ez dela izango baina kontutan hartu behar da baita ere aipatu dudan legea 40/2015 legeak bere 53 artikulua xedatzen duela baita ere 600.000 € gainditzen duen hitzarmenak bidali behar direla Euskal Kontuen Epaitegira.”*

Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Esan duzun bezala Olatz, zerbitzu hau oso ondo baloratuta dago Tolosan. Tolosa herri berezia da gai honi dagokionean eta bai aipatu enpresaren aldaketa ere egon dela. Baina nahiz eta hobekuntzak aipatzen diren hobekuntza bezala lehenagotik ere Tolosan ematen den zerbitzua ona dela. Ziurtatu daitekeela behintzat borondatea agertzen dela horrela jarraituko denaren ildotik. Hitzarmen berri bat, urtebeterako da, ez duela berez aldatzen behintzat okerrera. Gure aldetik hori azpimarratu.”*

GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN 2018KO UZTAILAREN 12KO IRIZPENA.

AURREKARIAK

- I.- Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.
- II.-Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.
- III.- Bestaldetik, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17.13 artikuluan xedatzen duenaren arabera, gizarte zerbitzuak antolatzea, programatzea eta kudeatzea, udalerrien eskumen propioak dira.
- IV.- Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, etxeko laguntza zerbitzua eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako



TOLOSAKO
UDALA

Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.

V.- Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkozat jo dute lankidetzaz hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.

VI.- Aurkeztutako hitzarmenak ondorengo baldintzak jaso ditu etxeko laguntza zerbitzuaren finantzaketarako, bakoitzak bere ponderazio-adierazlea izango duelarik:

- Zerbitzua ezartzea urteko egun guztietan (%35a).
- Erabiltzaileek ordaindu behar duten prezio publikoaren gehieneko kopurua 15 €tan finkatzea, astelehenetik ostiralera (%25a).
- Zerbitzuaren gehieneko intentsitatea eguneko 4 ordukoa izatea (%15a).
- Urgentziaz sartzeko modalitate bat ezartzea (%12'5a)
- Beste zerbitzu motak ezartzea, eta zerbitzua mendekotasunik ez duten pertsoneri zabaltzea (%12'5a).

Halaber, Gipuzkoako foru Aldundiak eta udalek, EUDELen lurraldeko batzordean 2017, 2018 eta 2019rako diru-ekarpenak adostu dituzte, eta hitzarmenaren III Eranskinean jaso dira, ondokoaren arabera:

- 2017: gaur egungo kopuruari 903.861 euroko kenketa egingo zaio.
- 2018: 903.861 euro horiei 1.418.067 euro batuko zaizkio, hala gaur egungo kopuruari 2.321.928 euroko kenketa egingo zaio.
- 2019: 2.321.928 euro horiei 1.428.072 euro banatuko zaizkio, denera 3.750.000 euroko doitzea lortuko delarik.
- Horretaz gain, foru aldundiaren eta udalen eskumeneko zerbitzuak garatzeko 2017ko fondoa %50ean banatuko da bien artean. Era honetan, Gipuzkoan Zorroan aurreikusitako 6.578.000 €, bien artean banatuko dira.

Hori guztia aintzat hartuta, Tolosako Etxeko Zerbitzuaren finantzaketa aldatzen duen hitzarmena onartzea proposatzen zaio eskuduntza duen udal organoari.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

AZTERKETA JURIDIKOA

I. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 55. artikulua, Estatu eta Autonomia Erkidegoetako administrazioen eta Toki Entitateetako administrazioen arteko koordinazioa, eraginkortasuna eta elkarrekiko lankidetzaz arautzen ditu, dituzten xedek ahalik eta era onenean bete ditzaten.



Aipatu Legearen 57. artikulua, besteak beste, Toki Administrazioa eta gainontzeko Administrazioen arteko lankidetzaren ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa arautzen du, udal eskumeneko zerbitzuak emateko garaian. Lankidetzaren hori, dagokion administrazio-hitzarmenaren edo partzuergoaren bitartez gauzatuko da.

Bestalde, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituen apirilaren 6ko 7/2016 Legearen 100. artikulua ondoko hau xedatzen du: *1.– Toki-erakundeek lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izango dituzte bai beraien artean bai gainerako administrazioekin, kudeaketa publiko efizienteagoa lortzeko eta administrazio-bikoiztasunak ekidin edo ezabatzeko. 2.– Lankidetzaren helburua izango da: sektore edo biztanleria jakin bati bideratutako sustapen-politikak koordinatzea; aldeetako baten eskumeneko obra edo zerbitzuak burutzeko; lege honetan zehaztutako eskumenak garatzeko –propioak, transferituak, eskuordetuak edo bestelakoak– behar diren egoitza, lokalak edo eraikinak partekatzea; ondareko ondasunak erabiltzeko lagatzea eta lagapenak onartzea; prestazio-jarduerak garatzea; hala dagokionean, obra, ondasun eta zerbitzuen administrazio-kontratazioa arrazionalizatu eta zentralizatzeko mekanismoak jartzea; administrazio-zerbitzuak multzokatzea, eta, finean, aurrekoen antzeko beste edozein helburu lortzeko behar diren neurriak hartzea.*

3.– Beharrezkoa denean, hitzarmenak aurreikusi ahal izango du, kasuan kasuko zerbitzuak eta bitarteko material eta ekonomikoak eskualdatzeaz gain, zerbitzu horietara atxikitako langileak ere aldatzea; baina horrek ez dakar berekin inor berez ez dagokion administrazio publiko bateko funtzio publikoan sartzea.

Finean, formulazio horiek 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 103.1 artikulua aplikazio zehatzak dira: *La Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación con sometimiento pleno a la ley y al Derecho.*

Halaber, 2016ko urriaren 2an indarrean sartu zen Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko titulua VI. Kapituluak, Lankidetzaren hitzarmenak arautzen ditu, ondoko definizioarekin: ***“1. Son convenios los acuerdos con efectos jurídicos adoptados por las Administraciones Públicas, los organismos públicos y entidades de derecho público vinculados o dependientes o las Universidades públicas entre sí o con sujetos de derecho privado para un fin común.*”**

No tienen la consideración de convenios, los Protocolos Generales de Actuación o instrumentos similares que comporten meras declaraciones de intención de contenido general o que expresen la voluntad de las Administraciones y partes suscriptoras para actuar con un objetivo común, siempre que no supongan la formalización de compromisos jurídicos concretos y exigibles.



Los convenios no podrán tener por objeto prestaciones propias de los contratos. En tal caso, su naturaleza y régimen jurídico se ajustará a lo previsto en la legislación de contratos del sector público.”

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Tolosako udalaren artean izenpetzea proposaturiko lankidetzaren hitzarmena, 40/2015 Legearen 47.2 artikuluko a) atalean xedaturiko hitzarmen mota izango litzateke, (a) *Convenios interadministrativos firmados entre dos o más Administraciones Públicas, o bien entre dos o más organismos públicos o entidades de derecho público vinculados o dependientes de distintas Administraciones públicas, y que podrán incluir la utilización de medios, servicios y recursos de otra Administración Pública, organismo público o entidad de derecho público vinculado o dependiente, para el ejercicio de competencias propias o delegadas.)*

Hitzarmenaren baliozkotasun eta eraginkortasunari dagokionean, 40/2015 Legearen 48. artikulua, bete beharreko baldintzak xedatzen ditu, horien artean, kasurako aipatzekoak:

- Hitzarmenak izenpetzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetu, zerbitzu publikoen eta baliabideen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak burutzeko laguntza eman eta aurrekontuaren egonkortasun eta finantza jasangarritasunaren inguruko legedia bete beharko ditu (48.3 artikulua)
- Hitzarmenak aldean adostasuna azalduz perfektionatzen direla (48.8 artikulua)

Hitzarmenek zehaztu beharreko gutxienezko materialak 40/2015 Legearen 49. artikulua xedatzen ditu, ondokoak:

a) Sujetos que suscriben el convenio y la capacidad jurídica con que actúa cada una de las partes.

b) La competencia en la que se fundamenta la actuación de la Administración Pública, de los organismos públicos y las entidades de derecho público vinculados o dependientes de ella o de las Universidades públicas.

c) Objeto del convenio y actuaciones a realizar por cada sujeto para su cumplimiento, indicando, en su caso, la titularidad de los resultados obtenidos.

d) Obligaciones y compromisos económicos asumidos por cada una de las partes, si los hubiera, indicando su distribución temporal por anualidades y su imputación concreta al presupuesto correspondiente de acuerdo con lo previsto en la legislación presupuestaria.

e) Consecuencias aplicables en caso de incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por cada una de las partes y, en su caso, los criterios para determinar la posible indemnización por el incumplimiento.



TOLOSAKO
UDALA

f) *Mecanismos de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y de los compromisos adquiridos por los firmantes. Este mecanismo resolverá los problemas de interpretación y cumplimiento que puedan plantearse respecto de los convenios.*

g) *El régimen de modificación del convenio. A falta de regulación expresa la modificación del contenido del convenio requerirá acuerdo unánime de los firmantes.*

h) *Plazo de vigencia del convenio teniendo en cuenta las siguientes reglas:*

1.º Los convenios deberán tener una duración determinada, que no podrá ser superior a cuatro años, salvo que normativamente se prevea un plazo superior.

2.º En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

Azpimarratu behar da igorritako hitzarmenaren testuan, HAMABIGARREN klausulan, hitzarmenaren iraupena ondorengo eran arautzen da: *Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.*

Azpimarratu behar da xedapen hau ez datorrela bat 40/2015 Legearen 49.h) artikuluan xedatutakoarekin, ondoko arrazoiengatik:

- Hitzarmenaren gehieneko iraupena lau urtekoa izango delako.
- Bere kasuan, luzatu nahi izanez gero, hitzarmenaren luzapena espresuki erabaki behar delako (ez dago luzapen taziturik).
- Luzapenaren gehieneko epea beste lau urtekoa delako.

Bestalde, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera, herri administrazioek ahalmena izango dute pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribatuekin hitzarmenak, kontratuak edo bestelako itunak formalizatzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuta: indarrean dagoen araubide juridikoaren aurkakoak ez izatea, dagokion gaiaren gain transakzio-debekurik ez izatea, eta dagokion akordioa interes publikoan oinarriturik egotea.

Beraz, Etxeko Laguntza zerbitzuaren finantzazioa eta haren baldintzak arautzen dituen hitzarmena, 12/2008 Legearen babesean eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko tituluaren VI. Kapituluak, Lankidetzaren hitzarmenak arautzen dituenak, xedaturikoarekin bat egingo da. Ildo beretik, hitzarmenaren iraupena arautzen duen HAMABIGARREN klausula egokitu



TOLOSAKO
UDALA

beharko da, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etor dadin.

II. JARDUNBIDEA

Jardunbideari dagokionez, Lankidetzaren hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaleko gardentasun atarian Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat, eta udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Halaber, hitzarmena Euskal Herriko Kontuen Epaimahaira igorriko da, goian aipaturiko 40/2015 Legearen 53.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Igorpen hau hitzarmena izenpetu eta **hiru hilabeteko epean** gauzatuko da.

III. ESKUMENA.- Lankidetzaren hitzarmen hau onartzeko eskumena Udalbatza Plenoarena da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 artikulua xedaturikoaren arabera.

Bozketa hasi aurretik, hitzarmenaren iraupenari dagokion zuzenketa hitzartu dute batzarkideek, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubidea arautzen duenak, bere 49 artikuluan xedaturikoarekin bat etor dadin. Zuzenketa hau irizpenaren SEIGARREN puntuan jaso da.

Beraz, hau dena kontuan hartuta, ondoko irizpenaren onespena proposatzen zaio eskuduntza duen organoari:

EBAZPEN PROPOSAMENA

LEHENA.- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Tolosako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, udalerrri honetako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko xedea duena, onartzea, ondoko klausulen arabera:

KLAUSULAK

“LEHEN. - Helburua

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak aldeztu aurretik adostuta.

BIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza ekonomikoa zerbitzuaren estalduran.



TOLOSAKO
UDALA

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalerrri guztiei zuzendutako Foru Aldundiaren gehieneko ekarpena II. eta III. eranskinetan azaltzen dena izango da.

Hiruhileroko ekarpena urtekoaren % 25aren baliokidea izango da.

Adierazitako zenbatekoek foru ekarpenaren gehieneko kopurua finkatuko dute eta, beraz, kopuru hori ez da aldatuko, nahiz eta zerbitzuaren jarduerak igoeraren bat izan.

HIRUGARREN.- Ordu bakoitzeko tarifaren gehieneko kopurua

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko gehieneko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

- Ordu bakoitzeko asteguneko tarifa:
18,87 €
- Ordu bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren orduko prezioa gehieneko tarifa baino txikiago balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziatzat hartuko da 2018. urterako udalean 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua eta 2019ko urtarrilaren 1ean dagoena 2019. urterako, eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.

LAUGARREN.- Zerbitzuaren erregulazioa.

Udalak Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

BOSGARREN.- Ordaintzeko prozedura.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du, zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak, seigarren klausulan ezarritakoak, aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa.

SEIGARREN.- Foru finantzaketa

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

a) Hiruhileroko fakturazioa:

Eskainitako zerbitzuen ordu kopurua hirugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.



TOLOSAKO
UDALA

b) Koordainketa:

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.

c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta:

Udalerrri guztiei zuzendutako Aldundiaren ekarpen teorikoei koefiziente murriztaile bera aplikatuz ateratzen den zenbatekoa da, baldin eta ekarpenen baturak gainditzen badu hiruhileroko ekarpen osoa, bigarren klausulan zehaztutakoa.

Koefiziente hori zatiketa honen emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

e) Aldundiaren oinarritzko ekarpena:

Ekarpena izango da d) atalean ateratzen den emaitza - Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:

Aldundiaren aurrekontuaren araberrako ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla-eta Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerrri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:

- 2018. urtea: hobekuntzak udal erregelamenduan edo ordenantza fiskalean jasota edo, bestela, idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez edo Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten enpresen kontratuetan hobekuntzak jasota.*
- 2019. urtea: hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eratutako batzorde teknikoak proposatuta.*

g) Aldundiaren ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzak direla-eta:

Udalerrrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Udalerrri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerrri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipaturako zenbateko globalaren arabera udalerrri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulaturako da.

h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:

f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakin osoa birbanaturako da udalerrrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.

i) Aldundiaren ekarpen eraginkorra bigarrengo hobekuntzak direla-eta:

g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.

j) Ateratzen den foru ekarpena:

e) eta i) ataletan zehazturako zenbatekoen batura da.

ZAZPIGARREN.- Abonu sistema

a) Likidazio aldia:

Urteko azken hiruhilekoaren likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura egiten denez, likidazio aldiak aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta uneko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoak hartuko ditu.

b) Likidazioa:

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla-eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:

1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarritzko ekarpenaren arabera, erabat.

2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

c) Bidalketa epeak betetzea:

Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, zortzigarren klausulan aurreikusitako epea amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskaturako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerrria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.



ZORTZIGARREN.- Informazio sistema.

a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordainketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:

1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuei emandakoa; hobekuntzen ezarpen eraginkorra; eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.

3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea)
- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak) (BOE 313 zk., 2013/12/31, I. atala, 107.128 orrialdea)

b) Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, Extranet SAD.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

c) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) lehen hiruhilekoa: apirilak 30
- b) bigarren hiruhilekoa: uztailak 31
- c) hirugarren hiruhilekoa: urriak 31
- d) laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 21



TOLOSAKO
UDALA

BEDERATZIGARREN.- Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen xede diren klausulen jarraipena egiteko, batzorde bat eratu ahal izango dela adostu dute bi alderdiek, non ordezkariak parekidea izango duten.

HAMARGARREN.- Hitzarmena amaitzeko eta iraungitzeko arrazoiak

Hitzarmena amaitu edo iraungiko da arrazoi hauetakoren bat baldin badago:

- a) *Bi aldeen arteko adostasuna*
- b) *Aldeetako batek uko egiten badiu hitzarmenari, beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena amaitutzat emateko aurreikusi den data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.*
- c) *Aldeek hitzarmenean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badituzte.*

HAMAIKAGARREN.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki beteta

HAMABIGARREN.- Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko abenduaren 31 bitarteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako."

Hitzarmenaren iraupena arautzen duen HAMABIGARREN klausula egokitu beharko da, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etor dadin

BIGARRENA.- Udal honetako Alkate-Udalburuari ahalmena ematea, aipatu hitzarmena eta berau egikaritzeko beharrezkoak diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 8.1 artikularen b) atalean xedaturikoarekin bat, eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuari eta Tolosako udaleko Kontu-hartzailatza sailari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Hitzarmena izenpetu ondoren, Euskal Herriko Kontuen Epaimahaira igortzea, hiru hilabeteko epea iragan baino lehenago.



TOLOSAKO
UDALA

SEIGARRENA (Plenoak onarturiko zuzenketa).- Hitzarmenaren iraupenak bat etorri beharko du Sektore Publikoko Araubide Juridikoa arautzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin. Beraz, haren iraupenak, aipaturiko arauan xedaturiko gehieneko epea, esanbidezko luzapena barne, ezingo du inolaz ere gainditu.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Gipuzkoa Foru Aldundiaren eta Tolosako udalaren arteko hitzarmena Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

**6. 2018ko diru-laguntzen eranskinaren 6. Aprobación del anexo de
aldaketaren onarpena. subvenciones de 2018.**

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeburua: *“Ogasun batzordean azaldu genuen proposamena elkarre desberdinen diru-laguntza izendunak izateko. Batzorde ezberdinetan aipatu dira eta xehetasun handiarekin azaldu ziren arrazoiak.*

Diktamenean jasota dauden elkarreentzat proposatzen diren kopuruak aipatu ondoren, gaineratu du: *“Arrazoi ezberdinak daude eta hauetako batzuk kontutan hartu ditugu: elkarreak taldeak izaera berezia daukate, nortasun propioa dute, urtean zehar egiten dituzten ekintzagaririk eta herriari ematen dion balio erantsia emateagaririk. Guzti honengatik proposatzen dugu diru-laguntza izenduna ematea eta batzarrak onartzea.*



TOLOSAKO
UDALA

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO UZTAILAREN 19KO IRIZPENA.

Kontuhartzaileak 2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena aztertu die batzordekideei: Honela geratzen dira aldatzen diren puntuak:

Partida	Onuraduna		Helburua	Aurrekontua	Tipoa
	CIF	IZENA			
0500.481.01.231.00		ELKARTEAK	Gizarte zerbitzutako laguntzak elkarteei	17.443,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.481.01.231.00	R2800560A	CARITAS	Ohiko jarduerak	9.050,00	iz enduna
0500.481.01.231.00	G20671947	ITURRIZA ELKARTEA	Ohiko jarduera	6.500,00	iz enduna
0500.481.01.231.00	G20208252	HARIZPE ELKARTEA	Ohiko jarduera	6.100,00	iz enduna
0500.481.01.231.00	G01462787	JAIMA	Oporrak bakean	14.107,00	iz enduna
0500.481.01.231.00	G48941611	BIKARTE ELKARTEA	Erruasiako haurren oporrak familietan	893,00	iz enduna
1000.481.01.341.00		KIROL TALDEAK	1. Eranskina. Kirol taldeen egitura	57.800,00	Konpetentzi lehiakorra
1000.481.01.341.00		IKASTETXEAK	2. Eranskina. Eskola kirola	50.000,00	Konpetentzi lehiakorra
1000.481.01.341.00	G20871521	TAK	Ohiko jarduera	20.000,00	iz enduna
1000.481.01.341.00	G20041422	TOLOSA C.F.	Ohiko jarduera	100.000,00	iz enduna
0800.481.01.338.00		ALDE ZAHARREKO BIZILAGUNAK	Alde Zaharrean ekintzak bultzatzeko	0,00	nominativa
0500.491.01.231.00		ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	65.425,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.491.01.231.00	G48772487	EUSKAL FONDOA	2 proiektu Guatemalan	7.325,00	iz enduna

Hau guztia ikusirik, bozkatu egin da:

- Begoña Tolosa (EAJ),: Aldeko botoa
- Nuria Carbonell (EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: Abstenitu
- Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Abstenitu

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:



TOLOSAKO
UDALA

Lehena.- Osoko Bilkurak 2018ko diru-laguntzaren eranskina aldatzea goran aipatutako aldaketekin.

Bigarrena.- 2018ko diru-laguntzaren eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendi, Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018ko diru-laguntzaren eranskina aldatzea.

7. 2018/8 kreditu aldaketarako (kreditu gehigarria) espedientearen onarpena. 7. Aprobación del expediente de modificación de créditos 8/2018 (credito adicional).

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendi, Ogasun batzordeburua: "2018. urteko 8. kreditu aldaketa hau kreditu gehigarriaren modalitateakoa da eta gerakinetatik finantzatuko da. Erabiliko ditugu 485.649 €. Horien artean, Ogasun batzordean gehiago zehaztu bagenuen ere, baina behintzat ideia bat egiteko proposatzen duguna da asfaltatzeko obra batzuk egiteko partida berri bat sortzea, 225.000 €koa .

Urtero aurrekontuetan sartzeko duguna da 200.000 € eta horietatik 75.000 € izaten dira mantenu obrak egiteko eta 125.000 izaten dira irisgarritasuna bermatzeko obrak. Kasu honetan ikusita mantenu obrak direla kalea asfaltzeko, lehen zati batzuk egiten zen ez osoa, ikusten genuen beste kale batzuk behar zutena zela kalea osotasunean asfaltatzea. Hori inbertsio bat bezala aurreikusten da eta horretarako proposatzen genuena zen 225.000€ jartzea. Hemen egingo genituen,



San Esteban, Rondilla, Andre Mari kalea bere osotasunean eta San Blaseko bidea. Horretaz parte, kreditu gehigarri honen barruan aipatzekoa da izapideen liburua garatzeko eta baita Udate antolaketarako ere behar izan dugu kanpoko laguntza. Honi aurre egiteko 18.500 € behar ditugu. TAKentzat diru-laguntza izenduna 8.000 €. Ingurumen departamentutik eduki dugu eskaera bat 18.000€koa nahi dutelako Tolosako auzoak sustatu eta ezaguzteratzeko, ez bakarrik beraien pasaiarengatik edo gastronomiarengatik, baizik eta azterketa bat eskatu nahi dute, auzoak bere nortasun propioa dutelako Turismo aktiboekin lotu, Beste partida bat jarri dugu 150.000€ soldataren igoerari aurre egiteko. Beste kopuru batzuk azaltzen dira banatu izan dugun dokumentazioaren artean eta izaten da laugarren puntuan ekitaldiko fakturen itxieran egiten duguna da. 2018. urteko aurrekontuaren aurka dihoanez 2017. urteko faktura batzuk, partida horrekik osatzen dugu 2018. urtea. Lehen aipatu izan dudana bezala inbertsio guztiak finantzatuko dira gerakinetatik.”

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Berriz ere! Ogasun batzordean abstenitu egin ginen puntu honetan eta abstenitzen jarraituko dugu. Ez, gaudelako hemen egingo diren inbertsioen kontra, iruditzen zaizkigu beharrezkoak direla, baina prozedura arazo bat dago. Legegintzaldia hasi zenetik salatzen ari gara ez direla aurreikusten aurrekontuetan gero egin behar diren ekintza batzuk. Horregatik egiten dugu abstentzioa. Hau da, kale asfaltatzea ebidentea zen. Rondilla kalea asfaltatu behar zela orain dela sei edo zazpi hilabete ebidentea zen eta, zergatik ez zen sartu aurrekontuetan sartu inbertsio hau? Ez da bakarrik orain hemen, plenoan, honetaz hitz egin behar dugula aurreikustea egin zitekenean, baizik eta, horrelako kreditu gehigarri hauek eskatzen diote kontuhartzaileari txosten propioa egitea. Burokrazia handitzea da. Pasa behar du Kontuhartzaileak horrelako txostenak egiten aurreikusi ez diren inbertsioak justifikatzeko, aurreikusteko modukoak zirenean? eta hemen hori partida bakarra da bestek ez ziren aurreikusteko modukoak. Baina estilo honek horrelako bozketarako ekartzen du. Ez da egokia gure irudiz eta ez zaigu prozedura egokia iruditzen. Hobe genuke aurrekontuak ahalik eta gehien zehaztu, zehaztu leikena. Eta kasu honetan Rondilla kalea asfaltatzea oso errez aurreikusten zitekeen joan urteko abenduan eta horregatik ez dugu adostuko kreditu gehiagarri hori, nahiz eta kontra egingo ez diogun obrak beharrezkoa direlako. Beste modu batera egin beharko lirake, ez gaude kudeaketa estilo honekin ados.”*



... Alkatea: *"Gogorazi nahi dut, Iñaki, asfaltuen partida berdina onartzen dela aurrekontu guztietan, legealdi honetan eta baita aurreko legealdian ere. Horretaz aparte, iruditzen zait lelo berdinarekin ari zaretela, behin eta berriz legealdi hasieratik horrelako inprobisazio sensazio transmititu nahian eta ez da egia. Ez da egia Gobernu talde honek inprobisazioz jokatzeko duela, plangintza bat dago, hauteskundeetara legealdiko plangintza batekin aurkeztu ginen. Udalean eta herritarrekin batera 2017-2027 Tolosako plangintza partekatua osatu da legealdi honetan: urtez urteko ekimen eta proiektuak ere herritarrekin kontrastatuz. Beraz, plangintza bat dago hamar urterako helburuarekin eta urtez-urteko egutegi konkretuekin. Hortik aurrera, Udalak erraminta ezberdinak ditu plangintza hori estaldura ekonomikoa emateko: behin eta berriz adierazi dugun bezala, aurrekontuak edo kreditu aldaketak ezberdinak. Aurrekontua Udalaren urteko plangintza osoa, horretarako daukagu tolosarrekin osatutako plangintza estrategikoa. Hori da, bidelerroa. Hortaz, plangintza zehatza badago, landua, publikoa dena, urte urtez herritarrekin bat lantzen diren proposamenekin hornitua, ezarritako norantzaren baitan eta ondoren Udalean hori burutu ahal izateko finantziak ezartzen zaiena era batera edo bestera. Horretarako ere urte berria hasi baino lehen definitu proiektu bakoitza non kokatuko den, finantziak hori lortzeko, aurrekontuaren barruan edo urtean zehar burutuko ditugun hainbat kreditu aldaketetan. Gaur burutuko den kreditu modifikazioarekin herriarentzako onura diren ekimen ugari jarriko dira martxan. Gehiago, nik uste dut kreditu aldaketak, azpimarratu nahi dut berriz, udal finantza sistemaren erraminta bat dela eta ez erabiltzeak suposatzen duela berriz guretzako plangintza falta eta erronka berriei aurre egiteko ganoragabekeria. Berriz errepikatuko dut udal finantza sistemaren erraminta da kreditu aldaketa, ez da plangintza ezarena, aldiz, erraminta hori ez erabiltzeak bai da plangintza falta baten isla."*

... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EH Bildu): *"Bi kontu, ados nago, erabat ados gaude kreditu aldaketak badirela kudeaketarako erraminta bat eta erabili behar dela erraminta hori beharrezkoa denean. Gure kezka da erabiltzen dela beharrezkoa ez denean eta aurreikusi zitekeen gauzak ez direla aurreikusi egiteko. Arrazoi duzu, aurreko legealdian ere asfaltatzeko partida bat zegoen, baina diferentzi handi batekin, Olatz: aurreko legealdian, eta honetan ere badago beste partida mantentzeko, eta ari gara inbertsioz. Hemen sortu da asfaltatzeko inbertsio partida bat aurreikusten zitekeena 2017ko abenduan, gure aurrekontuak Udalbatza honek onartu zituenean."*

... Alkatea: *"Lehen Begoñak aipatu badu ere, aztu puntu hori argitzeko, kale osoa asfaltatzen denean inbertsio bat da eta kalea osoa ez denean asfaltatzen mantenu lanak dira. Mantenu lanak dira Eguzkitza sagardotegiko bidea, Pedro Tolosa, Bentaundi, Iurre Eroski aurrean, Iparragirre, Donostia etorbidea, Bizkai kalea eta San Frantzisko kalea. Aldaketa bakarra da ez dela kale oso egien baizik eta konponketa bat dela. Hori da xehetasuna."*



OGASUN BATZORDEAREN 2018KO UZTAILAREN 19KO IRIZPENA.

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 2018/8 espedientea aztertu da.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	130.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	120.349,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	10.300,00
6	INBERTSIO ERREALAK	225.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		485.649,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	485.649,00
GUZTIRA		485.649,00

Hau guztia ikusirik,bozkatu egin da:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa

Nuria Carbonell(EAJ), Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa



TOLOSAKO
UDALA

Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
Kristina Pelaez (EH Bildu), Lore Agirrerren izenean: Abstenitu
Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Abstenitu

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

Lehena.- Osoko Bilkurak 8/2018 kreditu aldaketa onartzea.

Bigarrena.- 8/2018 kreditu aldaketaren espedientea hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

Udalbatzako bozketaren emaitza honakoa da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia eta Cristian Fernandez Susin.

Abstentzio botoak: Ibai Iriarte San Vicente, Onintza Lasa Arteaga, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Igor Ezenarro Balda, Kristina Pelaez Errazkin, Pedro Manuel Etxabe Zabala.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz **onartu du** hasierako onarpena ematea 2018/8 kreditu aldaketa gehigarrien espedienteari.

8. 2018/1444 (2018/9 kreditu gaikuntza) eta 2018/1452 (2018/10 kreditu transferentzia) dekretuei buruz kontu eman. 8. Dar cuenta de los decretos de Alcaldía 1444/2018 (habilitación de credito 9/2018) y 1452/2018 (10/2018 transferencia de credito).

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeburua: "Kasu honetan proposatzen dugu 2018. urteko bederatzikreditu aldaketa, kreditu gaikuntza eratakoa. 7.235,00€ jasotzen ditugu gure kutxarako Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik. Zati handiena Eusko Jaurlaritzatik 47.235,00 € Samaniego teilatua berritzeko



laguntza eta Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen ditugu 2.112,00€ Charlevilleko lankidetzarako. Hamargarren kreditu aldaketa berriz transferentzi modalitatekoa da. Kasu honetan 63.756,00 dira. Hemen partida batzuetatik beste batzuetara dirua pasa, Ogasun batzordean azaldu zen bertan egin diren mugimenduak.”

OGASUN BATZORDEAREN 2018KO UZTAILAREN 19KO IRIZPENA.

Kontuhartzaileak, 2018ko aurrekontuari dagozkion 9. eta 10. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.

Bederatzigarren espedientea kreditu gaikuntzaren modalitatean egin da eta jasotzen duten partidak hauek dira:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	2.112,00
6	INBERTSIO ERREALAK	47.235,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		49.347,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.112,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	47.235,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		49.347,00

Hamargarren espedientea kreditu transferentziaren modalitatean egin da eta jasotzen duten partidak hauek dira:



Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	30.000,00	20.000,00	10.000,00
4		99.960,20	43.756,00	56.204,20
GUZTIRA		129.960,20	63.756,00	66.204,20

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	504.286,00	21.556,00	525.842,00
4		231.100,00	42.200,00	273.300,00
GUZTIRA		735.386,00	63.756,00	799.142,00

Batzordekideak jakinaren gainek geratu dira.

9. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2018ko ekainaren 1etik 30era (2018/1.141- 2018/1.358).

9. Dar cuenta de los decretos emitidos por la Alcaldía del 1 al 30 de junio de 2018 (2018/1.141-2018/1.358).

Alkatetzak 2018ko ekainaren 1etik 30era bitartean (2018/1.141-2018/1.1358) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

10. Galderak eta eskaerak.

10. Ruegos y preguntas.

Alkatea: "Aipatu nahi dut honako hau: Eskualdeko emakumeen traineruak



TOLOSAKO
UDALA

Errenteriko bandera ekarri du honuntza, beraz, zorionak hemendik. Aipatzekoa da kirol munduari ikusita eta kirolari munduari begira kirolari guztiak, kasualitatez, beti ez da gertatzen baina gaurkoan bai, denak emakumeak dira: Gauza handiak ari dira egiten. Maria Lasa, adibidez, udaberrian 800 metroetan Espainiako txapelketa lortu zuen pista estalian eta orain 20 azpiko Munduko atletismo txapelketan hartu du parte Finlandian, Tolosako C.F.eko irurarrak da Maria. Paula de Juan ere atletismoko Espainiako txapeleketan absolutetan laugarrena izan da 400 metro hesietan. Ane Iturria mendiko lasterketa batzuk irabazi ondoren, azkenekoa Echo herrian, estatuko selektzioarekin abuztuan Italian egingo den jubenil mailako Munduko txapelketan partehartzeko hautatua izan da Alpino Uzturreko korrikalaria. Irene Caminos trial kirolan ibiltzen dena, Espainiako trial txapelketan Guadalajaran, urrezko domina eskuratu zuen ekainaren bukaeran, txapelketa irabazten duen bigarren aldia izanik. Eta Europako trial txapelketa, Suitzan, leiatu da Espainiako selektzioarekin eta laugarren postua eskuratu du. Hirugarrena izateko puntu bakarrera gainera. Eta Irati Lakunza hegatz igeriketan, Serbian, estatuko selektzioarekin aritu da pasada den astean munduko txapelketan eta, bertan, Espainiako errekorrak erdietsi ditu, eskafandrako 400 metrotako proban eta ur gaineko 400 metrotako proban. Herri honetan hainbat eta hainbat kirolarik daukaten maila izugarria da, ea iristen zaien gure berotasun guztia eta gure zorionik handiena.

Ondo pasa oporrak eta asko disfrutatu eta irailean etorri denak indarberrituta. Mila esker denori."

Besterik gabe, 20:30ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut.

ALKATEA

IDAZKARIA